eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

PSIKOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE PSICOLOGÍA




## Psikologia Fakultatea

# PLAN ESTRATEGIKOA

## 2024-2030

## AURKIBIDEA

1. Sarrera ... 3
2. Psikologia Fakultatearen misioa ... 4
3. AMIA analisia ... 4
4. Ikuspegia ... 9
5. 2024-2030 estrategia ... 11
6. Balioak ... 21
7. AMIA Kudeaketa Planeko ekintzekin gurutzatzea ... 22
8. Helburu Estrategikoak eta Ikuspegi Lerroak lerrokatzea ... 25
9. 2024-2030 aldirako Plan Estrategikorako adierazle estrategikoak ... 26
10. Hausnarketa estrategikorako taldea ... 28
I. ERANSKINA Lerrokatze estrategikoa: UPV/EHU - Psikologia Fakultatea ... 30

# 1. Sarrera

Dokumentu honetan Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Plan Estrategikoa aurkezten da, 2024-2023 aldikoa. Plan hau Fakultatearen gogoeta estrategikoaren emaitza da, eta gogoeta hori osatu duten etapen ondoren ateratako ondorioak biltzen ditu. Fakultateak 2030era arte lortu beharreko helburuak jasotzen dira, baita jomuga horiek lortzeko beharrezkotzat jotzen diren estrategiak eta ekintzak ere. Fakultateko aurreko planen antzera, Unibertsitatearen ardatz eta helburu estrategiko nagusiekin (I. eranskina) eta EHU-agenda 2030 egitasmoan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat dator.

Gogoeta estrategikoa Psikologia Fakultateko Dekanotza Taldeak gidatu du, eta barne eta kanpo interes taldeetako ordezkariek hartu dute parte. Psikologia Fakultatearen izenean, Dekanotza Taldeak eskerrak eman nahi dizkie 2024-2030 aldirako Plan Estrategikoa egiten parte hartu duten pertsonei.

Lehenengo fase batean, Psikologia Fakultatearen misioa berrikusi eta eguneratu da. Bigarren fase batean, ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak (AMIA analisia) identifikatu dira. Hirugarrenik, ikastegiaren misioa eta AMIA analisian jasotako ondorioak kontuan hartuta, Dekanotza Taldeak lehentasunezko bost ikuspegi lerro zehaztu ditu 2030erako. Ikuspegi lerro horiek lortzeko hurrengo urrats batean, alde batetik, Psikologia Fakultateko Dekanotza Taldeak helburu estrategikoen multzo bat zehaztu du, UPV/EHUren Plan Estrategikoarekin lerrokatutako lau ardatz estrategikotan bilduta:

1. Prestakuntza
2. Pertsonak
3. Gizartea
4. Kudeaketa

Bestalde, 2024-2030 estrategia hedatzeko, helburu estrategikoak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak definitu dira. Gogoeta estrategikoaren prozesuko hurrengo urratsa ikastegiko balioak berrikustea izan zen. Plan Estrategikoaren eraginkortasuna bermatzeko, AMIAren eta kudeaketa planaren ekintzak gurutzatu dira, eta helburu estrategikoak Psikologia Fakultatearen ikuspegi lerroekin lerrokatu dira, betiere ikastegiaren balioak kontuan hartuta. Azkenik, helburu estrategiko bakoitza lortzeko bidean, aurrerapena neurtzeko eta ebaluatzeko aukeratutako adierazleak aurkezten dira, lau ardatz nagusiak barne hartuta. Adierazle horiek ikuspegi argia eta kuantifikagarria eskainiko dute Fakultatearen Plan Estrategikoa betetzeari dagokionez, eta jarraipen eraginkorra eta erabaki hartze informatua ahalbidetzen dute plan estrategikoaren aldian zehar.

Alde batetik, hausnarketa prozesuari amaiera emateko, Dekanotza Taldeak talde fokaletako parte hartzaileei kontsulta egin die, beren

proposamenak estrategian behar bezala definitzeko eta artikulatzeko. Bestalde, 2024-2030 aldirako Plan Estrategikoaren zirriborroa egin du, eta ikastegiko Kalitate Batzordeari aurkeztu dio. Bertan, honako hauek daude ordezkatuta: sailak, graduen eta graduondokoen irakaskuntza koordinaziorako egitura, ikasleak eta TEKAZEL. Batzorde horren proposamenak Planaren dokumentuan sartu ziren, eta, azkenik, Fakultateko Batzarrera bidali ziren, hala badagokio, onets zitezen.

## 2. Psikologia Fakultatearen misioa

Psikologia Fakultatea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikastegi bat da, bikaintasuneko profesionalak prestatzeko eta Psikologian eta Logopedian ezagutza zientifiko berritzailea sortzeko konpromisoa duena, banakoen zein gizartearen osasuna eta ongizatea hobetzeko. Fakultateak graduko eta graduondoko prestakuntza akademiko eleanitza eskaintzen du, gaitasunen araberako irakaskuntza-ikaskuntzako hezkuntza-eredu batean oinarritua, eta oinarri teoriko-praktiko sendoa bermatzen du. Bikaintasunarekiko konpromisoa honako hauetan oinarritzen da: inpaktu handiko ikerketa sortu eta transferitzea, ikasketa plan eguneratuak, gure ikaslearen prestakuntza eta laneratzea bultzatzen duten kanpoko erakundeekin lankidetza estrategikoa, eta inklusioa, jasangarritasuna, berrikuntza eta pentsamendu kritikoa sustatzen duten langile kualifikatuak.

## 3. AMIA analisia

Hemen aurkezten den Plan Estrategikoa egiteko, Dekanotza Taldeak Fakultatearen egoeraren diagnostikoa egin du, ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatuz (AMIA analisia). Horretarako, barne eta kanpoko hainbat iturritako datuak hartu dira oinarri gisa.

| | Barnekoak | Kanpokoak |
|---|---|---|
| Negatiboak | **AHULEZIAK** | **MEHATXUAK** |
| Positiboak | **INDARGUNEAK** | **AUKERAK** |

Psikologia Fakultateko ahuleziak eta indarguneak identifikatzeko barne analisirako, informazio iturri hauek erabili dira:

- Azken 4 urteetako txostenak eta kudeaketa planak eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) adierazleen emaitzak.
- Koordinazio txostenak.
- Fakultateko batzordeekin eta Ikasleen Kontseiluarekin egiten diren aldizkako bileretan jasotako informazioa.
- Ikastegian eskaintzen diren titulazioen laneratzeari buruzko LANBIDEren txostenak.
- IRIen, TEKAZELen eta ikasleen gogobetetze inkestak.
- Ikasleek IRIen irakaskuntza balioesteko egindako inkesten emaitzak.
- Talde fokaletatik jasotako informazioa ikasleekin (gradu eta graduondokoak), IRIekin eta TEKAZELekin.
- Gipuzkoako Campuseko errektoreordearekin eta Errektoretza Taldearekin izandako bileretan jasotako informazioa.

Era berean, kanpoko analisia egiteko, hau da, Psikologia Fakultatearen mehatxuak eta aukerak identifikatzeko, informazio iturri hauek erabili dira:

- Elkargo profesionalekin egindako bileretan landutako gaiak.
- Espainiako unibertsitateetako Psikologiako eta Logopediako Dekanoen Konferentzietan (CDPUE eta CDLUE) landutako gaiak.
- Praktiketako tutoreen gogobetetze inkestak.
- Talde fokaletatik jasotako informazioa erakunde laguntzaileekin (praktiketako zentroetako enplegatzaileak) eta egresatutako ikasleekin.
- Agentzia ebaluatzaileen gomendioak.

AMIAren emaitza, ekarpenak berrikusi eta lehenetsi ondoren, honako hau izan zen:

## AHULEZIAK

### Prestakuntza

1. Gradu eta masterretako ikasketa planak eguneratzeko beharra.
2. Titulazioen ikasketa planak etengabe berrikustea.
3. Metodologia aktiboak hobeto erabiltzea.
4. Maila guztietan hobeto koordinatzea.
5. Etengabeko ebaluazio sistema hobetzea.
6. Psikologiako Graduan ingelesezko irakasgaien eskaintza baxua.
7. Profil hirueleduna duten IRIen plaza kopurua mugatua.
8. Osasun Psikologia Orokorra Masterrean (OPOM) plaza eskaintza mugatua.
9. OPO masterrean praktikak egiteko hitzarmen kopurua mugatua.
10. Bizialdi osoko prestakuntzarako tituluen eskaintza txikia.

11. Mugikortasun hitzarmen gutxi ingelesezko unibertsitateekin.
12. Ikasleek titulazioak prestatzeko dituzten itxaropenen eta errealitatearen arteko inkongruentzia.
13. BAT programa 1. mailako ikasleei mugatuta.
14. Genero ikuspegiari eta aniztasunarekiko arretari buruzko prestakuntza hobetzea.

**Pertsonak**

15. IRI eta TEKAZELen lana gutxi aitortzea.
16. Langileen artean elkar eragiteko aukera gutxi izatea.
17. Unibertsitatearen funtzionamenduari eta lan sustapeneko aukerei buruzko informazioa behar duten IRI hasiberriak.
18. IRIei prestakuntza osagarria emateko beharra.
19. IRI eta TEKAZELen nazioarteko mugikortasun mugatua.
20. Fakultateko ikertaldeen arteko sinergia mugatua.

**Gizartea**

21. Fakultatean sortutako ezagutza hobeto jartzea ikusgai eta hedatzea.
22. Ikasle egresatuekin/EHUalumni ikasleekin harreman eskasa.
23. Logopedaren lanbideari buruzko gizarte ezagutza eskasa.

**Kudeaketa**

24. Sailen eta Dekanotzaren arteko koordinazioa hobetzea.
25. Barne komunikazioa hobetzea.
26. Ikasleen Kontseiluarekiko komunikazioa hobetzea.
27. Ikasleekin komunikatzeko bide eraginkor gutxi.
28. Webgunea etengabe berritzeko beharra eta sailekin edukiak koordinatzeko beharra.
29. Campuseko instalazio partekatuekiko mendekotasun handia izatea, Fakultatean ikasgela nahikorik ez egotegatik.
30. Praktiken administrazio kudeaketa hobetzea.
31. Ordutegiak sistematizatzeko zailtasunak, irakaskuntza bektoreen konplexutasunagatik.
32. Egitura arazoak eraikinean.
33. Autobabes plana zaharkituta geratzea.
34. Fakultateko ingurumen kudeaketa hobetzea.

## INDARGUNEAK

**Prestakuntza**

1. Psikologiako Graduaren eta OPO masterraren eskaintza erabat elebiduna eta Logepedian hirueleduna izatea.
2. Nazioarteko prestigioa duen masterra, BCBLrekin batera.
3. Gradu berria EHU Duala aipamenarekin.
4. Ikuspegi berritzaileak dituen irakasle eta ikertzaile gazteen taldea.
5. Irakaskuntza berrikuntza eta kalitatearekin konpromisoa.
6. Irakaskuntza koordinazioko egitura izatea.
7. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasa onak izatea.
8. IRIen irakaskuntzaren ebaluazio oso positiboa egitea.

9. Hirugarren hizkuntzan irakaskuntza emateko akreditatutako IRI kopuru handia izatea.
10. English Friendly Course irakasgaiak areagotzea.
11. Nazioko eta nazioarteko mugikortasun kopuru handia izatea.
12. Praktiketako zentroen aukera zabala eta kalitate onekoa izatea.
13. Praktiketako zentroek graduan jasotako prestakuntzari buruzko balorazio ona egitea.
14. Psikologiako ikasketa plan eguneratua eta Logopediako gradu berria.
15. Ikasleek metodologia aktiboen erabilerari buruz balorazio ona egitea.
16. Tutoretza plana.
17. Ikasleek lanbide esperientzia duten irakasleen balorazio ona egitea.

**Pertsonak**

18. IRIek presentzia nabarmena izatea komunikabideetan.
19. Lan giro ona eta IRIen arteko lankidetzak ezartzeko interesa izatea.
20. IRI eta TEKAZEL berriei harrera egiteko gida izatea.
21. Komunikazio ona izatea Dekanotza Taldearekin.
22. Ezagutza eta seiurtekoen kopuru handia sortzen duten IRIak izatea.
23. DOCENTIAZ programan modu positiboan ebaluatutako irakasleen kopuru handia izatea.
24. Ikaslearekin gertuko harremana izatea.
25. Genero ikuspegian eta aniztasunarekiko arretan sentsibilizatutako eta prestatutako langileak izatea.

**Gizartea**

26. Ikerketa eta transferentzia proiektuen kopuru egokia.
27. Garapenerako lankidetza praktikak.
28. Gizarte konpromisoa.
29. Fakultatearen irudi ona.
30. Gertuko harremanak lanbide ingurunearekin.

**Kudeaketa**

31. Kalitatearen kudeaketan inplikatutako batzorde akademikoak.
32. Ikasleen inplikazioa Fakultateko batzorde guztietan.
33. Ikaslearen kronograma eta lan karga planifikatzea.
34. Egiaztapen instituzionala.
35. GPUntis eta WebUntis erabiltzea ordutegiak eta espazioak antolatzeko.
36. Fakultateko geletan eta instalazioetan ekipamendu egokia izatea.
37. Fakultatean baliabide informatikoen hornidura egokia izatea.
38. Birziklatze sistemak izatea.
39. Webgunearen egitura egokia.
40. "Esker on, iradokizun, kexa eta erreklamazioen" kudeaketa (EIKE).

**MEHATXUAK**

1. Kudeaketa hausnartua eragozten duten balizko larrialdi egoerak.
2. Beste unibertsitate, fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra.
3. Beste unibertsitate eta erakunde pribatu batzuen graduondoko ikasketen eskaintza zabala edo espezialitateen konbinazioa.

4. Osasun Psikologia Orokorrean prestakuntza behar duten esparruen kopuru gero eta handiagoa.
5. Unibertsitate pribatuetan ordaindu egiten dira praktikak.
6. Motibazio gutxi erakunde publikoetako praktiketako begirale izateko.
7. Psikologoaren lana araututa ez egotea eta intrusismo laborala egotea.
8. Adimen artifizialaren (AA) inpaktua prozesu akademikoetan.
9. Administrazio publikoko profesionalen lan ezegonkortasuna, eta horrek praktiken adjudikazioan duen eragina.
10. Administrazio eskakizun gero eta handiagoak gizarte segurantzan.
11. Beherakada demografikoa.

**AUKERAK**

1. Eskari handia Psikologiako Graduan.
2. Logopediako Gradua: lanbide arautua eta laneratze handia.
3. Osasun Psikologia Orokorreko masterrerako eskari handia.
4. Psikologiaren jarduketa esparru berriak sortzea.
5. Logopediako Graduan UNIBASQen nazioartekotze aipamena lortzeko aukera.
6. Osasun profesionalen beharra.
7. Euskadiko Osasun Ituna.
8. Hizkuntza gaitasun hirueleduna duten ikasleen kopurua handitzea.
9. Mugikortasun programa berriak eskaintzea.
10. Europako baterako graduetarako ENLIGHT partzuergoa.
11. Gero eta sentsibilizazio handiagoa GJHekiko.
12. Prestakuntza osagarriak gehitzeko aukera, mikrokredentzialen edo etengabeko prestakuntzako beste irakaskuntza mota batzuen bidez.
13. Prozesu akademikoetan AA erabiltzea.
14. Eraldaketa digitala eta testuinguru eleanitza.

# 4. Ikuspegia

UPV/EHUko Psikologia Fakultatearen xedea da Psikologian eta Logopedian prestakuntza, ikerketa eta ezagutza transferitzeko erreferentziazko ikastegi akademiko bihurtzea. Gure ikuspegiak, zerbitzu publiko gisa dugun bokazioan eta 2030era begira proiektatutako errealitatearen analisia abiapuntutzat hartuta, gizarteari laguntzea du helburu, gure lanaren eta konpromiso etikoaren bidez.

Zehaztutako ikastegiaren misioa eta AMIA analisian jasotako ondorioak aintzat hartuta, Dekanotza Taldeak lehentasunezko bost ikuspegi lerro definitu zituen.

- **Bikaintasuna eta berrikuntza prestakuntzan:** gizartearen beharrei eta errealitateei erantzungo dieten prestakuntza programa integral eta eguneratuak eskaintzeko lan egiten dugu. Gure euskarazko eta ingelesezko eskaintza indartu, metodologia aktiboak garatu eta ebaluazio prozesuak etengabe hobetu nahi ditugu. Gure prestakuntzak ezagutza zientifikoa eta gure ikasleen laneratzea erraztuko duten lanbide gaitasunak uztartzea nahi dugu.
- **Lanbide lidergoa eta enplegagarritasuna, ikuspegi globalarekin:** psikologiaren eta logopediaren lanbide esparruetan egiten dugun ekarpena indartu nahi dugu, gure ikasleen enplegagarritasunean arreta berezia jarriz. Elkarlanean aritzen gara egresatu, enplegatzaile eta elkargo profesionalekin, gure prestakuntzak lan merkatuaren benetako beharrei erantzuten diela bermatzeko. Prestakuntza praktikoa hobetzen, prestakuntza duala bultzatzen eta lan mundurako trantsizioa errazten ahalegintzen gara. Enplegagarritasunarekiko konpromiso hori aberastu egiten da gure nazioarteko proiekzioaren bidez, mugikortasuna eta lanbide testuinguru globalizatu baterako prestakuntza sustatzen dituen ingurune bat sortuz.
- **Ikerketa eta transferentzia:** ezagutza zientifiko garrantzitsua sortzen eta gizarteari benetan transferitzen saiatzen gara, ikertaldeen arteko lankidetzak sustatuz. Gure diziplinetan sortzen ari diren esparruetan laguntzen ahalegintzen gara, egungo eta etorkizuneko gizarte beharrizanei erantzuteko.
- **Gizarte konpromisoa eta jasangarritasuna:** Gure zereginetan genero ikuspegia, aniztasunarekiko arreta eta Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatzen ditugu. Euskararekiko konpromisoa mantentzen dugu eta gure ingurumen kudeaketa hobetzeko lan egiten dugu; hori dela eta, gizarte bidezkoago eta jasangarriago bat garatzen laguntzen dugu.

- **Kudeaketa kolaboratiboa:** kolektibo guztien ekarpena kontuan hartzen duen giroa sortzen saiatzen gara, gure komunikazioa hobetuz eta gure baliabideak optimizatuz. Parte hartzea eta erantzunkidetasuna sustatu nahi ditugu, gure ahaleginak gure komunitatearen ongizatera bideratuz.

Ikuspegi horrekin, gure inguruko erronkei aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu, gure gaitasun eta baliabideekin lagunduz, gure mugak aitortuz eta muga horiek gainditzeko erabakitasunez lan eginez, betiere interes taldeekin eta gizarte osoarekin lankidetzan.

## 5. 2024-2030 estrategia

Ikuspegiarekin lotutako helburuak gauzatzeko, bost ildo estrategiko definitu dira eta hainbat helburu eta ekintza estrategikotan banatuta daude. Horrez gain, 2030erako ikuspegiari dagozkion helburuak lortzeko gauzatuko diren urteko Kudeaketa Planarekin lotutako ekintzak zehaztu dira.

| AR DATZA | PRESTAKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| **PRESTAKUNTZA** | Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrizan eta errealitate sozial eta profesional aldakorretara eta lege esparru berrietara. | Psikologiako Gradua eta Logopediako Gradu berriaren ikasketa plan berria ezartzea eta jarraipena egitea. | 1. Ikasketa planen ezarpenaren jarraipena egitea | Urtero |
| | | | 2. Irakaskuntza bektoreak, gaiak eta konpetentzien ebaluazioa berrikustea. | Urtero |
| | | | 3. Graduen lehen promozioko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua berrikustea eta ebaluatzea. | 28-29 ikasturtea |
| | | Graduondoko egungo eskaintza aztertzea eta berrikustea. | 4. PGTEK masterra aldatzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 5. EPEP masterra eguneratzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 6. OPOMeko praktiketako plazak handitzeko aukera aztertzea. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 7. OPOMeko plazen eskaintza handitzea proposatzea, bideragarria dela iritziz gero | 26-27 ikasturtea |
| | | Graduko titulazio berrien beharrizanak aztertzea | 8. Titulazio berrien beharrizanak aztertzea. | 27-28 ikasturtea |
| | | | 9. Titulazio berriak proposatzea, egokitzat joz gero. | 28-29 ikasturtea |
| | | Ministerioaren araudi eta aldaketa berriei erantzutea. | 10. Ministerioaren araudi eta aldaketa berriei erantzutea. | Urtero |
| | | Teknologia berriek goi mailako hezkuntzaren testuinguruan planteatutako erronka berriak aztertzea. | 11. Teknologia berriek planteatzen dituzten aukerak eta mehatxuak aztertzea. | 25-26 ikasturtea |

| AR DATZA | PRESTAKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | | Sinergiak bilatzea fakultateko titulazioen ikasketa planen artean | 12. Sinergiak bilatzea fakultateko titulazioen ikasketa planen artean | 28-29 ikasturtea |
| | Lanbidea gauzatzera eta bizitzan zeharreko prestakuntzara bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea. | Graduondoko eta etengabeko ikaskuntzako eskaintza eguneratua eta dinamikoa egiteko prestakuntza beharrizanak aztertzea. | 13. Graduondoko eta etengabeko ikaskuntzako eskaintzeko beharra aztertzea. | Urtero |
| | | | 14. Graduondoko eta etengabeko ikaskuntzako titulazioak proposatzea, egokitzat joz gero. | Urtero |
| | | | 15. Graduondoko eta etengabeko ikaskuntzako eskaintza eguneratuta mantentzea. | Urtero |
| | Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegagarritasuna bultzatzeko. | Graduko eta graduondoko praktiketako hitzarmenen kopurua handitzea. | 16. Graduko eta graduondoko curriculumeko praktikak egiteko esparruak dibertsifikatzen eta handitzen jarraitzea. | Urtero |
| | | Graduko eta graduondoko borondatezko praktikak erraztea. | 17. Graduko eta graduondoko borondatezko praktikak erraztea. | Urtero |
| | | Prestakuntza duala bultzatzea. | 18. Logopediako Graduan prestakuntza duala ezartzea. | 26-27 ikasturtea |
| | | | 19. Fakultateko beste titulazio batzuetan prestakuntza dualaren bideragarritasuna baloratzea. | 27-28 ikasturtea |
| | | Lan irteerei eta enplegua bilatzeari buruzko informazioa ematea. | 20. Psikologiako eta Logopediako lan irteerei buruzko jardunaldiak antolatzea, elkargo profesionalekin eta gure fakultateko ikasle egresatuekin lankidetzan. | Urtero |
| | | | 21. Ikasleei enplegua bilatzeko baliabideei buruzko informazioa ematea, baita eskaintzen den beste ikastaro batzuei buruzkoa ere. | Urtero |
| | | | 22. Ikasle egresatuen artean enplegu eskaintzak modu eraginkorrean hedatzeko sistema sortzea | 25-26 ikasturtea |
| | | Ekiteko prestakuntza sustatzea. | 23. Informazioa hedatzea eta Gipuzkoako Campuseko ekintzailetza programetako ikasleen parte hartzea sustatzea. | Urtero |
| | | | 24. Fakultateak ekintzailetza ikastaroak eskaintzeko aukera baloratzea. | Urtero |
| | | Egresatuek enplegua sustatzeko ekimenetan | 25. Egresatuek Eusko Jaurlaritzaren lan mundurako trantsizio beketan parte har dezaten sustatzea eta lortutako bekak izapidetzea. | Urtero |

| AR DATZA | PRESTAKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | | parte har dezaten sustatzea. | | |
| | UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea. | Berezko IKD hezkuntza eredutik eta i3 estrategiatik abiatuta, ikasleak ardatz dituen eta ebidentzian oinarritutako hezkuntza berrikuntza duen kalitatezko hezkuntza bultzatzea. | 26. Hezkuntza berrikuntzako proiektuekin lotutako deialdiak hedatzea eta sustatzea. | Urtero |
| | | | 27. Fakultateko irakasle eta ikertzaileak buru dituzten hezkuntza berrikuntzako proiektuen emaitzak eta esperientzia hedatzea. | Urtero |
| | | Prestakuntza osagarria erraztea. | 28. Prestakuntza osagarriko ikastaroak antolatzea eta hedatzea. | Urtero |
| | | Titulazioen ikasketa planetan genero ikuspegia eta aniztasuna txertatzea. | 29. Titulazioen ikasketa planetan genero ikuspegia eta aniztasuna txertatzeko prozesu mailakatua planifikatzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 30. Irakasleak prestatzea genero ikuspegia eta aniztasuna irakats gidetan txertatzeko. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 31. Adostutako plangintza abian jartzea. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 32. Fakultatean genero ikuspegia eta aniztasuna txertatzeko prozesua dinamizatu eta erraztuko duen talde bat sortzea. | 24-25 ikasturtea |
| | Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea. | Ikasle, IRI eta TEKAZELen mugikortasuna erraztea. | 33. Mugikortasunari buruzko informazioa hobetzea graduetako lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. | Urtero |
| | | | 34. Logopediako Gradurako mugikortasun akordioak ezartzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 35. Graduetako mugikortasun, hitzarmenen katalogoa berrikustea, eguneratzea eta hobetzea. | Urtero |
| | | | 36. IRIei eta TEKAZELei mugikortasun aukeren berri ematea. | Urtero |
| | | Ingelesezko irakasgaien eskaintza sustatzea. | 37. Ingelesezko irakasgaien eskaintza sustatzea. | Urtero |
| | | Urratsak egitea nazioartekotzearen aintzatespen ziurtagiria lortzeko logopedian. | 38. Logopediako graduaren lehen promozioaren osteko datuak aztertzea, nazioartekotze aintzatespena lortzeko ekintzak proposatzeko, egokitzat joz gero. | 28-29 ikasturtea |

| AR DATZA | PRESTAKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | Graduen eta graduondokoen berri ematea ikasleei. | Ikasleek Fakultateko titulazioei buruzko informazio eta orientazio jardueretan parte har dezaten sustatzea. | 39. UPV/EHUko unibertsitate aurreko orientazio jardueretan aktiboki parte hartzen jarraitzea: EGOKITU programa, EEK hitzaldiak, OrientaTU, unibertsitate orientazioko azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak. | Urtero |
| | | | 40. Fakultatearen Tutoretza Planeko (TP) jarduerekin jarraitzea graduetan. | Urtero |
| | | | 41. Errektoreordetzari BAT programa bigarren mailan ezartzeko eskatzea. | 23-24 ikasturtea |
| | | | 42. Graduen bigarren mailan BAT programa ezartzea. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 43. BAT ikasleen prestakuntza planifikatzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 44. TPn sartutako hitzaldien kronograma eguneratzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 45. Fakultateko graduondokoetan TPa ezartzeko aukera aztertzea. | 26-27 ikasturtea |
| | | | 46. Master Week jardunaldietan edo UPV/EHUk bultzatutako beste erakartze jarduera batzuetan gure graduondokoak hedatzen jarraitzea. | Urtero |
| | | | 47. Fakultatean emandako graduondokoen berezko hedatze jardunaldien antolaketa baloratzea. | Urtero |

| ARDATZA | HELBURU ESTRATEGIKOA | EKINTZA ESTRATEGIKOA | KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK | BURUTZE DATA |
|---|---|---|---|---|
| | **PERTSONAK** | | | |
| PERTSONAK | Fakultateko kolektibo desberdinen aintzatespena bultzatzea. | Langileen lan ibilbidea ikusaraztea eta aintzatestea. | 48. Langileak aintzatestea eta baloratzea euren erretiroagatik eta lanean emandako 25 urteengatik. | Bi urtean behin |
| | | | 49. Webgunean langileen curriculuma mantendu eta eguneratu dadin sustatzea. | Urtero |
| | | | 50. Barne buletinaren bidez langileekin lotutako albisteak hedatzea. | Hiru hilean behin |
| | | Ikasleen bikaintasun akademikoa aintzatestea. | 51. Promozioko espediente onenak aintzatestea. | Urtero |
| | | | 52. Promozioko GrAL onenak eta GrALarekin lotutako beste sari batzuk aintzatestea. | Urtero |
| | | | 53. Ikasleen eta egresatutako ikasleen lorpenei buruzko albisteak hedatzea. | Urtero |
| | Fakultateko langileen lanbide sustapena eta lan egonkortasuna erraztea. | TEKAZELen gizarteratzea eta etengabeko prestakuntza erraztea. | 54. TEKAZELak hartzeko gida eguneratzea. | Urtero |
| | | | 55. TEKAZELei prestakuntza ikastaroetan parte hartzea ahalbidetzea. | Urtero |
| | | IRIei karrera akademikoari eta etengabeko prestakuntzari buruzko informazioa ematea. | 56. IRI berriak hartzeko gida eguneratzea. | Urtero |
| | | | 57. Berdinen arteko tutoretza programa bat sortzea irakasle berrientzat. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 58. IRIei karrera akademikoari eta goratzeko dituzten aukerei buruzko informazioa emateko bilerak antolatzea. | Urtero |
| | | | 59. Ikastaro, mintegi, kongresu eta abarrei buruzko informazioa ematea eta bertaratzea ahalbidetzea. | Urtero |
| | | | 60. IRIek irakaskuntza berritzeko programetan eta DOCENTIAZ programan parte har dezaten sustatzea. | Urtero |
| | Lanean giro ona ahalbidetzea. | Ikastegian bizikidetza giroa sustatzea. | 61. Bizikidetza batzorde bat sortzea, ikastegian bizikidetza positiboko ohiturak ezartzeko. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 62. Ezarritako bizikidetza ohiturak bultzatzeko eta errespetatzeko neurri egokiak hartzea. | Urtero |
| | | Ekimen sortzaileak eta lankidetza ekimenak ahalbidetu eta sustatzea, langileak, irakasleak, eta ikertaldeak harremanetan jar daitezen. | 63. Fakultateko ikertzaileen arteko sinergiak sustatzeko espazioak eta ekintzak sustatzea. | 25-26 ikasturtea |

| ARDATZA | PERTSONAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | Fakultatea ingurune osasungarri eta erosoa izan dadin sustatzea. | Ikastegia egokitzen jarraitzea, inguru osasungarri eta erosoagoa izateko. | 64. Espazioak eta altzariak erabiltzaileen beharretara egokitzea. | Urtero |

| ARDATZA | GIZARTEA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| GIZARTEA | Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. | Dibulgazio zientifikoa sustatzea. | 65. Komunikazio koordinatzailearen figura sortzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 66. Fakultateko irakasleak eta haien produkzio zientifikoa sare sozialetan eta komunikabideetan ikusaraztea. | Urtero |
| | | | 67. Fakultateko eta bertako langileen ekintzei buruzko informazioa ematea webgunean eta sare sozialetan. | Urtero |
| | | | 68. Irakasleek Zientzia Astean eta dibulgazio zientifikorako bestelako ekintzetan parte har dezaten sustatzea. | Urtero |
| | | Erakunde eta enpresekiko lankidetza sustatzea. | 69. Erakunde eta enpresekiko lankidetza sustatzea. | Urtero |
| | Euskararekiko dugun konpromisoa sendotzea. | Euskararen erabilera sustatzea esparru guztietan. | 70. Barne eta kanpoko komunikazioan euskararen erabilera bermatzea. | Urtero |
| | | | 71. Euskararen sustapenarekin zerikusia duten ekimenak bultzatzea eta horietan aktiboki parte hartzea. | Urtero |
| | | | 72. Euskarazko irakaskuntza materiala sortzearekin lotutako deialdiak hedatzea. | Urtero |
| | | | 73. IRIei eta TEKAZELei eskaintzen zaizkien euskara ikastaroei buruzko informazioa ematea. | Urtero |
| | | | 74. Euskara Batzordeak psikologia eta logopedia arloko terminoak egunera ditzan sustatzea. | Urtero |
| | | | 75. Euskara Batzordeak proposatutako ekintzak bultzatzea eta sustatzea. | Urtero |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. | Desgaitasunak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuarekin lankidetzan aritzea aktiboki. | 76. Desgaitasunak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuarekin lankidetzan aritzea aktiboki. | Urtero |
| | | Arreta Psikologikorako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea. | 77. Arreta Psikologikorako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea haren jarduera hedatzeko. | Urtero |
| | | Lankidetzan jarraitzea eta Fakultatean entzuteko eta erantzuteko sarea bultzatzea. | 78. Lankidetzan jarraitzea eta Fakultatean entzuteko eta erantzuteko sarea bultzatzea. | Urtero |
| | | Jarduera akademikoan genero ikuspegia txerta dadin sustatzea. | 79. Berdintasun Batzordeak proposatutako ekintzak bultzatzea eta sustatzea. | Urtero |
| | | | 80. Irakasleek AKADEME programan parte har dezaten bultzatzea. | Urtero |
| | | Garapenerako lankidetza praktikak mantentzea eta sustatzea. | 81. Garapenerako lankidetza praktikak mantentzea eta sustatzea. | Urtero |
| | | Ingurumenaren kudeaketan etengabeko hobekuntza sustatzea. | 82. Fakultateko langile eta ikasleen garraio jasangarria bultzatzea. | Urtero |
| | | | 83. Ingurune osasungarria sustatzeko Batzordeak proposatutako ekintzak bultzatzea eta sustatzea. | Urtero |
| | | | 84. Fakultateko hondakinen kudeaketa hobetzea. | Urtero |
| | | GJHei eta psikologiak horietan duen zereginari buruz kontzientziatzea. | 85. GJHak Fakultateko titulazioetan sar daitezen bultzatzea. | Urtero |

| ARDATZA | KUDEAKETA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | HELBURU ESTRATEGIKOA | EKINTZA ESTRATEGIKOA | KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK | BURUTZE DATA |
| KUDEAKETA | Sailekin estrategia bateratu bat garatzea sustatzea. | Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea kontratazio beharrak. | 86. Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea Fakultateko IRIen plantilla teorikoa. | 24-25 ikasturtea |
| | | Aldian-aldian bilerak egitea sailetako zuzendariekin. | 87. Aldian-aldian bilerak egitea sailetako zuzendariekin irakaskuntza eskaintzari buruz. | Urtero |
| | Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. | Sare sozialak erabiltzen jarraitzea Fakultatearen barne eta kanpo komunikazioari begira. | 88. Fakultatearen kontuak interes taldeen artean gehien erabiltzen diren sare sozialetan mantentzea eta/edo UPV/EHUren komunikazio estrategiaren barruan gomendatutako sare sozialen erabilerara egokitzea. | Urtero |
| | | Fakultatearen webgunearen erabilera sustatzea, bi hizkuntzetan, informazio iturri gisa. | 89. Fakultatearen webguneko edukiak ingelesera itzultzea. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 90. Webgunea hainbat hizkuntzatan eguneratuta izatea. | Urtero |
| | | | 91. Webgunean ikasleentzat, IRIentzat eta TEKAZELentzat informazio erabilgarria sartzea. | Urtero |
| | | Barne komunikazioaren hobekuntzan aurrera egitea. | 92. Fakultatearen informazio buletina mantentzea eta zabaltzea. | Urtero |
| | | | 93. Modu eraginkorrean kudeatzea posta elektronikoz bidaltzen den informazioa eta komunikaziorako plataforma korporatiboen erabilera sustatzea. | Urtero |
| | Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea. | Titulazioaren kudeaketa hobetzeko ekintzak gauzatzea. | 94. Titulazioen koordinazio bilerak egitea maila guztietan eta Ikasleen Kontseiluarekin. | Hiru hilean behin |
| | | | 95. Idazkaritzako langileen zereginen banaketa berrikustea. | 24-25 ikasturtea |
| | | | 96. Ikastegiko batzordeen osaera eta zereginak berrikustea. | Urtero |
| | | | 97. Kudeaketa akademikoari laguntzeko figurak berrikustea eta sortzea. | 24-25 ikasturtea |
| | | Instalazioen eta ekipamenduen beharrizanak aztertzea. | 98. Espazioen, instalazioen eta ekipamenduen beharrizanak aztertzea. | Urtero |
| | | | 99. Campuseko beste ikastegi batzuekin koordinatzea erabilera komuneko espazioen erabilera (I. M. Barriola, E. Zipitria, C. Santamaría eta JM. Korta eraikinak). | Hiru hilean behin |
| | | Ordutegien kudeaketa ikastegiko titulazio berrietara egokitzea. | 100. Ordutegien kudeaketa ikastegiko titulazio berrietara egokitzea. | Urtero |

| ARDATZA | KUDEAKETA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea. | Ikastegia bikaintasunaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegiaren arabera koordinatzea. | 101. Kudeaketaren autoebaluazioa egitea. | Urtero |
| | | Ikastegiaren kudeaketan eta Fakultateko proiektuetan kolektibo guztiek parte har dezaten sustatzea eta inplikazio maila areagotzea. | 102. "Beste pertsona batzuk" sartzea batzorde eta lantaldeetan, eta aldian behin berritu daitezen sustatzea. | Urtero |
| | | | 103. IRI, TEKAZELen eta ikasleen arteko prestakuntza sustatzea kalitatea kudeatzeko ereduan, batez ere Kalitate Batzordeko kideen artean. | Urtero |
| | | Urratsak egitea BIKAIN ziurtagiria lortzeko. | 104. Fakultatean euskararen erabilerari buruzko datuak biltzea, ELHUYARekin elkarlanean egindako galdetegi baten bidez. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 105. Jasotako datuekin dagokion txostena osatzea eta UPV/EHUko zerbitzu arduradunari igortzea. | 25-26 ikasturtea |
| | | | 106. Zerbitzuaren eskutik jasotako feedback-a aztertzea eta horren araberako erabakiak hartzea. | 25-26 ikasturtea |
| | Fakultatearen eta UPV/EHUko zerbitzu eta gobernu organoen eta Psikologia eta Logopediarekin lotutako kanpoko erakundeen arteko harremanak mantentzea. | Fakultateak UPV/EHUko kudeaketa organoetan duen presentzia mantentzea eta sustatzea. | 107. UPV/EHUko kudeaketa batzordeetan eta organoetan langileek par har dezaten sustatzea. | Urtero |
| | | | 108. Dekanotzak aktiboki parte hartzen jarraitzea Unibertsitateko zerbitzu eta gobernu organoekin egiten diren bileretan. | Urtero |
| | | Psikologia Dekanoen Konferentziarekin (CDPUE) eta Logopedia Dekanoen Konferentziarekin eta Psikologiako elkargo ofizialekin (PEOak) eta Euskadiko Logopeden Elkargoarekin (CLPV/ELE) ditugun harremanak mantentzea. | 109. Dekanotzak aktiboki parte hartzen jarraitzea CDPUE eta CDLUE bileretan eta PEO eta CLPV/ELErekin aldian behingo bilerak egitea. | Urtero |
| | | | 110. Erakunde laguntzaileekiko eta intereseko erakunde publikoekiko harremana mantentzea eta sustatzea. | Urtero |
| | Ikastegiaren segurtasuna optimizatzea, gabeziak zuzenduz eta autobabes plana eguneratuz. | Arriskuen ebaluazioan detektatutako gabeziak lantzea, lantokien arabera. | 111. Urratsak egitea arriskuen ebaluazioan detektatutako gabeziak konpontzeko, lantokien arabera. | Urtero |
| | | Ikastegiko autobabes plana eguneratzea. | 112. Ikastegiko autobabes plana eguneratzea. | 24-25 ikasturtea |
| | Fakultatean ingurumen jasangarritasuna | Aztarna ekologikoa neurtzeko sistema bat garatzea, oinarrizko lerro | 113. Fakultatearen aztarna ekologikoa neurtzeko eta monitorizatzeko metodologia estandarizatua ezartzea. | 25-26 ikasturtea |

| ARDATZA | KUDEAKETA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **HELBURU ESTRATEGIKOA** | **EKINTZA ESTRATEGIKOA** | **KUDEAKETA PLANEKO EKINTZAK** | **BURUTZE DATA** |
| | sustatzea, kultura ekologiko parte hartzailea sortuz eta neurtzeko eta etengabe hobetzeko sistemak ezarriz. | bat ezartzeko eta ingurumen jasangarritasunaren arloan Fakultatearen aurrerapena monitorizatzeko. | 114. Urteko jarraipen sistema bat ezartzea, ezarritako ekimenen inpaktua ebaluatu ahal izateko. | Urtero |
| | | Jasangarritasunerako parte hartze komunitarioko programa bat ezartzea, kontzientzia ekologikoa eta praktika jasangarriak sustatzeko, batera diseinatutako eta autosostengarriak diren ekimenen bidez. | 115. Jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko prestakuntza espazioak sortzea unibertsitateko komunitatearentzat. | Urtero |
| | | | 116. Fakultateko interes taldeen parte hartzearekin batera diseinatutako ingurumen ekimenak garatzea. | Urtero |
| | | | 117. Ezarritako ekimenetarako autojasangarritasun mekanismoak diseinatzea, horien jarraitutasuna eta ohitura ekologiko berrien sendotzea bermatuz. | 25-26 ikasturtea |

## 6. Balioak

Hauek dira Psikologia Fakultatea osatzen dugun pertsonon zeregina gidatzen duten balioak:

- **Zerbitzu publikoko bokazioa:** gizartearen zerbitzura bideratutako ezagutza sortzeko eta transferitzeko konpromisoa.
- **Bikaintasuna eta etengabeko hobekuntza:** unibertsitate jardunean (irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa) etengabe kalitatea bilatzea eta gure prozesuak etengabe ebaluatzea.
- **Gizarteratzea eta aniztasunarekiko errespetua:** aniztasuna baloratzea eta pertsona ororentzako aukera berdintasuna sustatzea.
- **Pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa:** hausnarketa erreflexiboa, berrikuntza eta eztabaidatze konstruktiboa esparru guztietan sustatzea.
- **Konpromiso etikoa:** jarduketa arduratsua eta zuzena gure irakats, ikerketa eta kudeaketa jarduketa guztietan.
- **Lankidetza eta komunikazio eraginkorra:** elkarlana, erantzukidetasuna eta elkarrizketa konstruktiboa sustatzea kolektibo guztien artean.
- **Euskararekiko konpromisoa:** euskararen erabilera, garapena eta balorazioa sustatzea eremu akademiko eta profesional guztietan.
- **Ingurumenaren jasangarritasuna:** ingurunearen babesarekiko eta garapen jasangarriarekiko konpromiso aktiboa.
- **Berrikuntza eta moldagarritasuna:** ingurunearen aldaketei eta erronka sozial eta teknologiko berriei sormenez erantzuteko gaitasuna.

## 7. AMIA Kudeaketa Planeko ekintzekin gurutzatzea

Amaitzeko, eta Plan Estrategikoaren eraginkortasuna bermatzeko, AMIA eta kudeaketa planaren ekintzak gurutzatu dira, betiere ikastegiaren balioak kontuan hartuta.

| | AHULEZIAK | EKINTZAK |
|---|---|---|
| Prestakuntza | 1. Gradu eta masterretako ikasketa planak eguneratzeko beharra | 4, 5, 12 |
| | 2. Titulazioen ikasketa planak etengabe berrikustea | 1, 2, 3, 10 |
| | 3. Metodologia aktiboak hobeto erabiltzea | 26, 27, 60 |
| | 4. Maila guztietan hobeto koordinatzea | 2, 87, 94 |
| | 5. Etengabeko ebaluazio sistema hobetzea | 2, 3, 26, 94 |
| | 6. Psikologiako Graduan ingelesezko irakasgaien eskaintza baxua | 37, 38 |
| | 7. Profil hirueleduna duten IRIen plaza kopurua mugatua | 37, 86, 87 |
| | 8. Osasun Psikologia Orokorra Masterrean (OPOM) plaza eskaintza mugatua | 6, 7 |
| | 9. OPO masterrean praktikak egiteko hitzarmen kopurua mugatua | 6, 16 |
| | 10. Bizialdi osoko prestakuntzarako tituluen eskaintza txikia | 13, 14, 15 |
| | 11. Mugikortasun hitzarmen gutxi ingelesezko unibertsitateekin | 34, 35 |
| | 12. Ikasleek titulazioak prestatzeko dituzten itxaropenen eta errealitatearen arteko inkongruentzia | 39, 40, 43 |
| | 13. BAT programa 1. mailako ikasleei mugatuta | 41, 42, 43 |
| | 14. Genero ikuspegiari eta aniztasunarekiko arretari buruzko prestakuntza hobetzea | 29-32 |
| Pertsonak | 15. IRI eta TEKAZELen lana gutxi aitortzea | 61, 62, 63 |
| | 16. Langileen artean elkar eragiteko aukera gutxi izatea | 56, 57, 58 |
| | 17. Unibertsitatearen funtzionamenduari, funtzionamendu akademikoari eta lan sustapeneko aukerei buruzko informazioa behar duten IRI hasiberriak | 59, 60 |
| | 18. IRIei prestakuntza osagarria emateko beharra | 36, 55 |
| | 19. IRI eta TEKAZELen nazioarteko mugikortasun mugatua | 63 |
| | 20. Fakultateko ikertaldeen arteko sinergia mugatua | 65 |
| Gizartea | 21. Fakultatean sortutako ezagutza hobeto jartzea ikusgai eta hedatzea | 65 -68 |
| | 22. Ikasle egresatuekin/EHUalumni ikasleekin harreman eskasa | 20, 21, 22, 53 |
| | 23. Logopedaren lanbideari buruzko gizarte ezagutza eskasa | 20, 39 |
| Kudeaketa | 24. Sailen eta Dekanotzaren arteko koordinazioa hobetzea | 86, 87 |
| | 25. Barne komunikazioa hobetzea | 91, 92, 93 |
| | 26. Ikasleen Kontseiluarekiko komunikazioa hobetzea | 94 |
| | 27. Ikasleekin komunikatzeko bide eraginkor gutxi | 88, 91, 93 |
| | 28. Webgunea etengabe berritzeko beharra eta sailekin edukiak koordinatzeko beharra | 89, 90, 91 |
| | 29. Campuseko instalazio partekatuekiko mendekotasun handia izatea, Fakultatean ikasgela nahikorik ez egotegatik | 98, 99 |
| | 30. Praktiken administrazio kudeaketa hobetzea | 95, 97 |
| | 31. Ordutegiak sistematizatzeko zailtasunak, irakaskuntza bektoreen konplexutasunagatik | 2, 8, 100 |
| | 32. Egitura arazoak eraikinean | 64, 111 |
| | 33. Autobabes plana zaharkituta geratzea | 112 |
| | 34. Fakultateko ingurumen kudeaketa hobetzea | 82-84,113-117 |

| | INDARGUNEAK | EKINTZAK |
|---|---|---|
| Prestakuntza | 1. Psikologiako Graduaren eta OPO masterraren eskaintza erabat elebiduna eta Logepedian hirueleduna izatea | 70, 71, 72 |
| | 2. Nazioarteko prestigioa duen masterra, BCBLrekin batera | 46, 47 |
| | 3. Gradu berria EHU Duala aipamenarekin | 3, 18, 19 |
| | 4. Ikuspegi berritzaileak dituen irakasle eta ikertzaile gazteen taldea | 56, 57, 58 |
| | 5. Irakaskuntza berrikuntza eta kalitatearekin konpromisoa | 26, 27, 60 |
| | 6. Irakaskuntza koordinazioko egitura izatea | 87, 94, 96 |
| | 7. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasa onak izatea | 2, 3 |
| | 8. IRIen irakaskuntzaren ebaluazio oso positiboa egitea | 59, 60 |
| | 9. Hirugarren hizkuntzan irakaskuntza emateko akreditatutako IRI kopuru handia izatea | 37, 38 |
| | 10. English Friendly Course irakasgaiak areagotzea | 37, 89, 90 |
| | 11. Nazioko eta nazioarteko mugikortasun kopuru handia izatea | 33, 34, 35 |
| | 12. Praktiketako zentroen aukera zabala eta kalitate onekoa izatea | 16, 17, 69 |
| | 13. Praktiketako zentroek graduan jasotako prestakuntzari buruzko balorazio ona egitea | 2, 3 |
| | 14. Psikologiako ikasketa plan eguneratua eta Logopediako gradu berria | 1, 2, 10 |
| | 15. Ikasleek metodologia aktiboen erabilerari buruz balorazio ona egitea | 26, 27 |
| | 16. Tutoretza plana | 40, 44, 45 |
| | 17. Ikasleek lanbide esperientzia duten irakasleen balorazio ona egitea | 48, 49 |
| Pertsonak | 18. IRIek presentzia nabarmena izatea komunikabideetan | 65, 66, 68 |
| | 19. Lan giro ona eta IRIen arteko lankidetzak ezartzeko interesa izatea | 61, 62, 63 |
| | 20. IRI eta TEKAZEL berriei harrera egiteko gida izatea | 54, 56, 57 |
| | 21. Komunikazio ona izatea Dekanotza Taldearekin | 92, 93 |
| | 22. Ezagutza eta seiurtekoen kopuru handia sortzen duten IRIak izatea | 63, 66 |
| | 23. DOCENTIAZ programan modu positiboan ebaluatutako irakasleen kopuru handia izatea | 60 |
| | 24. Ikaslearekin gertuko harremana izatea | 40, 94 |
| | 25. Genero ikuspegian eta aniztasunarekiko arretan sentsibilizatutako eta prestatutako langileak izatea | 29, 30, 31, 32 |
| Gizartea | 26. Ikerketa eta transferentzia proiektuen kopuru egokia | 63, 69 |
| | 27. Garapenerako lankidetza praktikak | 81 |
| | 28. Gizarte konpromisoa | 69, 76-82, 85 |
| | 29. Fakultatearen irudi ona | 65- 68 |
| | 30. Gertuko harremanak lanbide ingurunearekin | 69, 110 |
| Kudeaketa | 31. Kalitatearen kudeaketan inplikatutako batzorde akademikoak | 101, 103 |
| | 32. Ikasleen inplikazioa Fakultateko batzorde guztietan | 94, 102 |
| | 33. Ikaslearen kronograma eta lan karga planifikatzea | 44, 100 |
| | 34. Egiaztapen instituzionala | 101, 103 |
| | 35. GPUntis eta WebUntis erabiltzea ordutegiak eta espazioak antolatzeko | 100 |
| | 36. Fakultateko geletan eta instalazioetan ekipamendu egokia izatea | 64, 98 |
| | 37. Fakultatean baliabide informatikoen hornidura egokia izatea | 98 |
| | 38. Birziklatze sistemak izatea | 83, 84 |
| | 39. Webgunearen egitura egokia | 89, 90, 91 |
| | 40. “Esker on, iradokizun, kexa eta erreklamazioen" kudeaketa (EIKE) | 101 |

| MEHATXUAK | EKINTZAK |
|---|---|
| 1. Kudeaketa hausnartua eragozten duten balizko larrialdi egoerak | 10, 11, 101, 112 |
| 2. Beste unibertsitate, fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra | 8, 9, 12, 28, 66 |
| 3. Beste unibertsitate eta erakunde pribatu batzuen graduondoko ikasketen eskaintza zabala edo espezialitateen konbinazioa | 12, 13, 14, 46, 47 |
| 4. Osasun Psikologia Orokorrean prestakuntza behar duten esparruen kopuru gero eta handiagoa | 6, 7, 16 |
| 5. Unibertsitate pribatuetan ordaindu egiten dira praktikak | 16, 69 |
| 6. Motibazio gutxi erakunde publikoetako praktiketako begirale izateko | 66, 69, 110 |
| 7. Psikologoaren lana araututa ez egotea eta intrusismo laborala egotea | 20, 66 |
| 8. AAren inpaktua prozesu akademikoetan | 11, 28 |
| 9. Administrazio publikoko profesionalen lan ezegonkortasuna, eta horrek praktiken adjudikazioan duen eragina | 16, 17 |
| 10. Administrazio eskakizun gero eta handiagoak gizarte segurantzan | 95, 97 |
| 11. Beherakada demografikoa | 8, 13, 28, 39 |

| AUKERAK | EKINTZAK |
|---|---|
| 1. Eskari handia Psikologiako Graduan | 39 |
| 2. Logopediako Gradua: lanbide arautua eta laneratze handia | 18, 20, 39 |
| 3. Osasun Psikologia Orokorreko masterrerako eskari handia | 6, 7 |
| 4. Psikologiaren jarduketa esparru berriak sortzea | 8, 16 |
| 5. Logopediako Graduan UNIBASQen nazioartekotze aipamena lortzeko aukera | 37, 38 |
| 6. Osasun profesionalen beharra | 7, 16 |
| 7. Euskadiko Osasun Ituna | 66, 69, 110 |
| 8. Hizkuntza gaitasun hirueleduna duten ikasleen kopurua handitzea | 33, 37 |
| 9. Mugikortasun programa berriak eskaintzea | 34, 35, 36 |
| 10. Europako baterako graduetarako ENLIGHT partzuergoa | 35, 37 |
| 11. Gero eta sentsibilizazio handiagoa GJHekiko | 81, 82, 84, 85 |
| 12. Prestakuntza osagarriak gehitzeko aukera, mikrokredentzialen edo etengabeko prestakuntzako beste irakaskuntza mota batzuen bidez | 13, 14, 28 |
| 13. Prozesu akademikoetan AA erabiltzea | 11, 26 |
| 14. Eraldaketa digitala eta testuinguru eleanitza | 11, 37, 89, 90 |

## 8. Helburu Estrategikoak eta Ikuspegi Lerroak lerrokatzea

| ARDATZAK | Helburu estrategikoak | Ikuspegiak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. Bikaintasuna eta berrikuntza prestakuntzan: | 2. Lidergo profesionala eta enplegagarritasuna | 3. Ikerketa eta transferentzia | 4. Gizarte konpromisoa eta jasangarritasuna | 5. Kudeaketa kolaboratiboa |
| Prestakuntza | 1.1. H.E. Prestakuntza eskaintza gizarte beharretara/behar profesionaletara egokitzea | ✓ | ✓ | ✓ | | |
| | 1.2. H.E.Graduondoko prestakuntza indartzea | ✓ | ✓ | ✓ | | |
| | 1.3. H.E. Praktika katalogo zabala mantentzea enplegagarritasuna hobetzeko | ✓ | ✓ | | | |
| | 1.4. H.E. IKD eredua eta i3 estrategia sustatzea | ✓ | ✓ | | | |
| | 1.5. H.E. Nazioartekotzean aurrera egitea | | ✓ | | | |
| | 1.6. H.E. Eskaintza akademikoari buruzko informazioa ematea | | ✓ | ✓ | | |
| Pertsonak | 2.1. H.E. Kolektiboen aintzatespena sustatzea | | | | | ✓ |
| | 2.2. H.E. Sustapena eta laneko egonkortasuna ahalbidetzea | | | | | ✓ |
| | 2.3. H.E. Lanean giro ona ahalbidetzea | | | | | ✓ |
| | 2.4. H.E. Ingurune osasuntsua sustatzea | | | | ✓ | |
| Gizartea | 3.1. H.E. Fakultatea ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea | | ✓ | ✓ | | |
| | 3.2. H.E. Euskararekiko konpromisoa indartzea | | | | ✓ | |
| | 3.3. H.E. GJHekin, inklusioarekin eta Giza Eskubideekin lerrokatzea | ✓ | | | ✓ | |
| Kudeaketa | 4.1. H.E. Estrategia komuna sailekin | | | | | ✓ |
| | 4.2. H.E. Barne/kanpo komunikazioa hobetzea | ✓ | | | | ✓ |
| | 4.3. H.E. Titulazioan kudeaketa optimizatzea | ✓ | | | | ✓ |
| | 4.4. H.E. Kalitatea Bermatzeko Sistema mantentzea | | | | | ✓ |
| | 4.5. H.E. Harreman instituzionalak sendotzea | | ✓ | ✓ | | |
| | 4.6. H.E. Ikastegiko segurtasuna optimizatzea | | | | | ✓ |
| | 4.7. H.E. Ingurumen jasangarritasun parte-hartzailea sustatzea | | | | ✓ | |

Ikus daitekeenez, Prestakuntza ardatzeko helburuak naturalki lerrokatzen dira “Bikaintasuna eta berrikuntza prestakuntzan” eta “Lanbide lidergoa eta enplegagarritasuna, ikuspegi globalarekin” dimentsioekin. Konexio horrek agerian uzten du gure konpromisoa

gizartearen eta arlo profesionalaren eskariari erantzuna emango dion kalitatezko prestakuntzarekin, gure ikasleak lan merkaturako prestatzen baititugu.

Pertsonak ardatzaren kasuan, argi eta garbi ikus dezakegu “Kudeaketa kolaboratiboa” dimentsioan metatzen dela gehien bat. Joera horrek azpimarratzen du gure ustea; hots, gure kolektibo guztien ongizatea, aintzatespena eta garapena oinarrizkoa dela gure gainerako helburuen arrakasta lortzeko.

Gizartea ardatzaren helburuen lotura bikoitza da, “Ikerketa eta transferentzia” eta “Gizarte konpromisoa eta jasangarritasuna” dimentsioekin. Dualitate horrek erakusten ditu ezagutza zientifikoa sortzearekin batera, gizarte balioak eta hizkuntza eta inguruneari lotutako balioekiko konpromiso irmoa erakutsi behar dugula.

Azkenik, Kudeaketa ardatzeko helburuak gehien bat “Kudeaketa kolaboratiboa” eremuan metatzen dira, baina lotura daukate gure ikuspegiko gainerako dimentsioekin. Banaketa horrek agerian uzten du kudeaketak duen zeharkako izaera gure helburu instituzional guztiak lortzeko elementu bideratzaile gisa.

## 9. 2024-2030 aldirako Plan Estrategikorako adierazle estrategikoak

Jarraian, Psikologia Fakultateko helburu estrategikoei lotutako adierazle estrategikoak aurkezten ditugu, 2024-2030 aldirako Plan Estrategikoari dagokionez. Adierazle horiek helburu estrategiko bakoitza lortzeko bidean, aurrerapena neurtzeko eta ebaluatzeko hautatu dira, eta lau ardatz nagusiak barne hartzen dituzte: Prestakuntza, Pertsonak, Gizartea eta Kudeaketa. Adierazleen bitartez jarduketa eremu bakoitzean Fakultatearen jardunaren ikuspegi argia eta kuantifikagarria lortuko dugu, eta plan estrategikoa aplikatu bitartean, jarraipena eraginkorra izatea eta erabakiak modu informatu batean hartzea ahalbidetuko du.

| **ARDATZA** | **Helburu estrategikoa** | **Adierazle estrategikoak** |
|---|---|---|
| **Prestakuntza** | 1.1. H.E. Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrizan eta errealitate sozial eta profesional aldakorretara eta lege esparru berrietara. | Titulazioaren egokitasuna<br>Errendimendu tasak<br>Ikasketak uztearen tasa<br>Graduazio tasa<br>Irakaskuntzarekiko gogobetetze maila<br>Enplegu tasa<br>Prestakuntzari lotutako enpleguaren %a |
| | 1.2. H.E. Lanbidea gauzatzera eta bizitzan zeharreko prestakuntzara bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea | |
| | 1.3. H.E. Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegagarritasuna bultzatzeko | |
| | 1.4. H.E. UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea | |
| | 1.5. H.E. Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea. | |
| | 1.6. H.E. Graduen eta graduondokoen berri ematea ikasleei. | |
| **Pertsonak** | 2.1. H.E. Fakultateko kolektibo desberdinen aintzatespena bultzatzea. | IRIek beren lanarekiko dute gogobetetze maila<br>TEKAZELek beren lanarekiko dute gogobetetze maila |
| | 2.2. H.E. Fakultateko langileen lanbide sustapena eta lan egonkortasuna ahalbidetzea. | |

| | | |
|---|---|---|
| | 2.3. H.E. Lanean giro ona ahalbidetzea. | |
| | 2.4. H.E. Fakultatea ingurune osasungarri eta erosoa izan dadin sustatzea. | |
| Gizartea | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. | Fakultatean defendatutako Tesien kopurua<br>Argitaratutako artikuluen kopurua<br>Garapenerako lankidetza praktiken kopurua |
| | 3.2. H.E. Euskararekin dugun konpromisoa sendotzea. | |
| | 3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. | |
| Kudeaketa | 4. 1. H.E. Sailekin estrategia bateratua sustatzea. | Plan estrategikoa izatea<br>Txostenak eta kudeaketa planak izatea<br>BIKAIN ziurtagiria lortzea |
| | 4.2. H.E. Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. | |
| | 4.3. H.E. Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea. | |
| | 4.4. H.E. Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea. | |
| | 4.5. H.E. Fakultatearen eta UPV/EHUko zerbitzu eta gobernu organoen eta Psikologia eta Logopediarekin lotutako kanpoko erakundeen arteko harremanak mantentzea. | |
| | 4.6. H.E. Ikastegiaren segurtasuna optimizatzea, gabeziak zuzenduz eta autobabes plana eguneratuz. | |

Laburbilduz, Psikologia Fakultateko 2024-2030 aldirako Plan Estrategikorako proposatutako adierazle estrategikoek modu integralean jorratzen dituzte lau ardatz nagusiak. Prestakuntza ardatzean jasotako adierazle batzuk, hala nola errendimenduari, ikasketak uzteari, graduatzeari eta enpleguari lotutako tasek titulazioen kalitatea eta egokitasuna ebaluatzea ahalbidetzen dute, eta gizarte beharretara eta behar profesionaletara egokitzen dira bermatzen dute. Bestalde, Pertsonak ardatzean, irakasle eta ikertzaileen (IRI) eta Teknikarien eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (TEKAZEL) gogobetetzea neurtzea oinarrizkoa izango da lan giro positiboa sustatzeko eta bikaintasuna bultzatzeko Fakultatearen ekintza eremu guztietan. Gizartea ardatzari dagokionez, aurkeztutako tesien, argitaratutako artikuluen eta garapenerako lankidetza praktiken kopuruak, besteak beste, Fakultateak ezagutza sortzean eta hedatzean duen inpaktua eta ekarpena islatuko dute, bai eta gizarte erantzukizunarekiko eta komunitatearen hobekuntzarekiko duen konpromisoa ere. Amaitzeko, Kudeaketa ardatzaren kasuan, etengabeko hobekuntzara bideratuta dagoen Fakultatearen kudeaketa eraginkorra eta gardena bermatzeko, oinarrizko adierazleak dira honako hauek: Plan Estrategikoa izatea, txostenak eta kudeaketa planak izatea eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea.

Laburbilduz, adierazle estrategikoen multzo horrek Psikologia Fakultatearen jardunaren ikuspegi osoa eta orekatua eskainiko digu datozen urteetan. Halaber, horrek ezarritako helburuekiko aurrerabidearen jarraipena ahalbidetuko du eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzea errazteko du, jarduketa eremu guztietan bikaintasuna lortzeko.

# 10. Hausnarketa estrategikorako taldea

**Dekanotza Taldea**

- Dekanoa: Eneritz Gómez Lázaro
- Idazkari akademikoa: Saioa Telletxea Artzamendi
- Kalitate eta graduondoko dekanordea: Juan Manuel Machimbarrena Garagorri
- Akademia Antolakuntzako dekanordea: Mirari Gaztañaga Echeverria
- Ikasle eta graduko dekanordea: Eider Pascual Sagastizabal
- Praktiken eta Enplegagarritasuneko dekanordea: Garazi Labayru Isusquiza
- Mugikortasun dekanordea: Edurne Elgorriaga Astondoa
- Administratzailea: Mª Dolores Alonso Crespo
- Ikastegiko teknikaria: Arantza González Larraina

**Kalitate Batzordea**

- Dekanotza Taldea
- Sailetako Zuzendaritzak
  - Alexander Muela Aparicio
  - Edurne Martinez Moreno
  - Eduardo Fano Ardanaz
  - Igor Esnaola Echaniz
  - Izaskun Aldezabal Roteta
- Psikologiako Graduko koordinatzailea
  - Natalia Alonso Alberca
- Logopediako Graduko koordinatzailea
  - Patricia Macia Guerrero
- Fakultateko master ofizialetako koordinatzaileak:
  - Karmele Salaberria Iriziar
  - Nagore Asla Alcibar
  - Gabriel Rodriguez San Juan
  - Manuel Carreiras Valiña
- Psikologiako Graduko mailetako koordinatzaileak:
  - Alaitz Aizpurua Sanz
  - Nerea Lertxundi Iribar
  - Aitziber Azurmendi Imaz
  - Olatz Goñi Balenciaga
- Ikasleak:
  - Yaiza Urtea Ciriaco

- Inés Arasco Sánchez

# I. ERANSKINA Lerrokatze estrategikoa: UPV/EHU - Psikologia Fakultatea

Psikologia Fakultateak bere behar espezifikoei zein UPV/EHUk ezarritako lerroei erantzuteko egituratzen ditu ardatz estrategikoak. Unibertsitateak bost ardatz (Prestakuntza, Ikerketa eta Transferentzia, Kultura eta Gizartea, Pertsonak eta Gobernantza eta baliabideak) hartzen ditu kontuan bere estrategia egituratzeko; aitzitik, gure Fakultateak aurreko planeko oinarrizko lau ardatzak mantendu ditu (Prestakuntza, Pertsonak, Gizartea eta Kudeaketa). Ikerketa eta transferentzia Gizarte ardatzean integratu dira; horren bidez, alderdi horiek gizartean duten inpaktuarekin eta proiekzioarekin lerrokatu dira. Izan ere, ikerketa garatzeko eta finantzatzeko gaitasun eta baliabide nagusiak Unibertsitateko organo zentralen zein bestelako kanpo erakundeen esku daude. Halaber, integrazio horrek gure irakats jardueraren zein ikerketa jardueraren ezaugarri diren zerbitzu publikoko eta gizarte konpromisoko bokazioa azpimarratzea ahalbidetzen du.

Jarraian, UPV/EHUren ardatzak aintzat hartuz eta honen 2020-2025 aldirako planeko helburu estrategikoaren lerrokatzea ikus daiteke eta Fakultatearen helburu estrategikoekin (2024-2030).

## I. ARDATZA. PRESTAKUNTZA

| UPV/EHUren Helburu Estrategikoak | Fakultatearen Helburu Estrategikoak |
|---|---|
| I.1. – Oreka sortzea graduen (tokikoak eta egonkorrak) eta graduondokoen (dinamikoagoak eta nazioartekoagoak) artean | 1.1. H.E. Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrizan eta errealitate sozial eta profesional aldakorretara eta lege esparru berrietara.<br>1.2. H.E. Lanbidea gauzatzera eta bizitzan zeharreko prestakuntzara bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea. |
| I.2. – Graduetan, Masterretan eta Doktoregoetan prestakuntza dual zabala sustatzea | 1.2. H.E. Lanbidea gauzatzera eta bizitzan zeharreko prestakuntzara bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea.<br>1.3. H.E. Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegagarritasuna bultzatzeko. |
| I.3.- Masterretan ingelesezko eskaintza handitzea beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko, eta masterretako euskarazko eskaintza handitzea, batez ere gaikuntza masterretan | 1.5. H.E. Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea. |

| | |
|---|---|
| I.4. – Kalitate egiaztatutako etengabeko prestakuntza propioa sustatzea, gizartearen eskaerari erantzuteko. Horretarako, online zein euskarazko eskaintza handitu behar da. | 1.1. H.E. Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrizan eta errealitate sozial eta profesional aldakorretara eta lege esparru berrietara.<br>1.2. H.E. Lanbidea gauzatzera eta bizitzan zeharreko prestakuntzara bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea. |
| I.5. – IKD heziketa eredu propioa eta GJHekin konprometitutako irakaskuntza berrikuntzaren esparru berria indartzea, diziplina anitzeko prestakuntza zein zeharkako gaitasunak eta gaitasun digitalak bultzatuz | 1.4. H.E. UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea.<br>3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. |
| I.6 – Titulazioen enplegagarritasuna indartzea, ingurune sozioekonomikoarekin duten harremana estutuz eta ekintzailetza sustatuz eta sortuz | 1.3. H.E. Praktiken katalogo zabala izatea.<br>1.4. H.E. UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea.<br>3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |
| I.7. Online irakaskuntzarako eredu propioa definitzea | 1.1. H.E. Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrizan eta errealitate sozial eta profesional aldakorretara eta lege esparru berrietara.<br>1.4. H.E. UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea. |

Prestakuntzaren esparruan, lerrokatze solidoa antzeman daiteke UPV/EHUren eta gure Fakultatearen helburuen artean. Gure estrategiak modu integralean jorratzen ditu Unibertsitateak azpimarratutako alderdi nagusiak; enfasi berezia jartzen diogu gizarte beharrak egokitzeari, enplegagarritasunak, hezkuntza berrikuntzari, eta, ari zehatzago prestakuntza dualari, Logopediako Gradua sortzearen bidez. Nazioartekotzeren eta graduondoko prestakuntzaren kasuan, bi esparru estrategikoen arteko elkarrekikotasuna argia da. Helburu batzuk, hala nola online irakaskuntza, hezkuntza ikerketako eta gizarte beharren egokitzapenerako helburuetan inplizituki kontuan har daitezkeen arren, garapena esplizituagoa izan daiteke etorkizuneko plan estrategikoetan.

## II. ARDATZA. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

| UPV/EHUren Helburu Estrategikoak | Fakultatearen Helburu Estrategikoak |
|---|---|
| II.1. – Unibertsitateko I+G arloko taldeen diziplinaz gaindiko kooperazioa sustatzea | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |
| II.2. – Ikertalde gutxi edo ikertzeko ohitura gutxi duten eta aberastasun kulturala sortzen duten eta eratu edo egonkortu behar diren jakintza arloak sustatzea | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |
| II.3. – Ikertalde berriak sustatzea eta ikertzaile berriak sustatzea, ikerketa ibilbide eredu bat sustatuz | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |
| II.4.- Ikerketa erronkak eta GJHen agenda propioa (EHUagenda 2030) uztartzea | 3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. |
| II.5.- Gizartearen aberaste kulturalean eragin zuzena duen ikerketaren aintzatespena sustatzea | 2.1. H.E. Fakultateko kolektibo desberdinen aintzatespena bultzatzea.<br>3.1. H.E. Psikologia Fakultatea ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |
| II.6.- Ekintzailetza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea.<br>1.3. H.E. Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegagarritasuna bultzatzeko. |
| II.7 Tokiko zein nazioarteko aliantzak indartzea | 1.5. H.E. Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea.<br>4.5. H.E.- Fakultatearen eta UPV/EHUko zerbitzu eta gobernu organoen eta Psikologia eta Logopediarekin lotutako kanpoko erakundeen arteko harremanak mantentzea. |
| II.8.- Gure Unibertsitatean garatutako bikaintasunezko ikerketa nazioartean ezagutu dadin sustatzea | 3.1. H.E. - Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea<br>1. 5. H.E. Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea |
| II.9.- Euskarazko ikerketa sustatzea eta beste hizkuntza batzuetan egindako ikerketa euskarara egokitzen eta dibulgatzen laguntzea | 3.2. H.E. Euskararekiko dugun konpromisoa sendotzea<br>4.4. H.E. Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea |

Fakultateak ez du gaitasunik ikerketaren arloan Fakultatearen plan estrategikoan; hortaz, ikerketa eta transferentziari lotutako helburuak Gizartea ardatzaren barruan txertatzen ditu, eta horrek agerian uzten du ikerketa komunitaterako zuzeneko

zerbitzu gisa hautematen dugula. Ikuspegi horrek helburu instituzionalekiko koherentzia esanguratsua mantentzen du. Bereziki azpimarratu behar dugu eremu batzuetako lerrokatzea, hala nola euskara sustatzea, GJHekiko konpromisoa eta aliantza estrategikoak garatzea. Horri esker, Fakultateak ikerketa helburuei egitura integratu baten bidez erantzuten die, non ezagutza sortzea eta transferitzea gure gizarterako ekarpenaren oinarrizko zati den.

## III. ARDATZA. KULTURA ETA GIZARTEA

| UPV/EHUren Helburu Estrategikoak | Fakultatearen Helburu Estrategikoak |
|---|---|
| III.1.- Gizartearekiko komunikazioa, ezagutzaren dibulgazioa eta UPV/EHUren kultura ondarea hobetzea | 1.6. H.E. Graduen eta graduondokoen berri ematea ikasleei.<br>3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea.<br>4.2. H.E. Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. |
| III.2.- Euskal ingurune sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin martxan jarritako proiektuak eta hitzarmenak abiaraztea ahalbidetzea | 1.3. H.E. Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegagarritasuna bultzatzeko.<br>3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea.<br>4.5. H.E.- Fakultatearen eta UPV/EHUko zerbitzu eta gobernu organoen eta Psikologia eta Logopediarekin lotutako kanpoko erakundeen arteko harremanak mantentzea. |
| III.3.- Euskal gizartearen kultura zientifikoaren eta humanistikoaren hobekuntza lideratzea, bereziki euskarari eta euskal kulturari dagokionez | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea.<br>3.2. H.E. Euskararekiko dugun konpromisoa sendotzea. |
| III.4.- Genero berdintasunaren, inklusioaren eta garapen jasangarriaren esparruan erreferentziazko eredu gisa finkatzea | 3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea.<br>4.7. H.E. Fakultatean ingurumen jasangarritasuna sustatzea, kultura ekologiko parte hartzailea sortuz eta neurtzeko eta etengabe hobetzeko sistemak ezarriz. |
| III.5.- Gizartearen beharrekin, erronkekin eta arazoekin lotutako jarduketak gauzatzea | 3.1. H.E. Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea. |

Kultura eta Gizartea ardatzak lerrokatzen sendoa erakusten du UPV/EHUren eta Fakultatearen Plan Estrategikoaren artean. Gure Gizartea ardatzak zehatz mehatz jasotzen ditu gure unibertsitatea helburuak arlo horretan, eta enfasi berezia jartzen dio ezagutzaren transferentziari eta gizarte konpromisoari. Fakultateak helburu horiek bere testuinguru espezifikora egokitu ditu, eta koherentzia mantendu du unibertsitate ildoekin, ezagutza esparruen berezitasun propioak aintzat hartuta.

## IV. ARDATZA. PERTSONAK

| UPV/EHUren Helburu Estrategikoak | Fakultatearen Helburu Estrategikoak |
|---|---|
| IV.1.- Lan baldintza egokiak, proiekzioa duten lanpostu egonkorrak eta giza ingurune kolaboratiboak eta integratzaileak sustatzea | 2.2. H.E. Sustapena eta laneko egonkortasuna ahalbidetzea.<br>2.3. H.E. Lanean giro ona ahalbidetzea. |
| IV.2.- IRIen eta AZPko langileen beharren urte anitzeko planifikazioa garatzea eta beren ibilbide profesionala laguntzea | 2.2. H.E. Sustapena eta laneko egonkortasuna ahalbidetzea.<br>4.1. Sailekin estrategia bateratu bat garatzea sustatzea. |
| IV.3. – Plantilla gaztetzea sustatzea, erreleboen eta langileen egonkortze goiztiarraren bidez | 2.2. H.E. Fakultateko langileen lanbide sustapena eta lan egonkortasuna ahalbidetzea. |
| IV.4. – Banakako lanaren eta lan kolektiboaren prestigioa eta aintzatespena sustatzea | 2.1. H.E. Langileen zein ikasleen aintzatespena sustatzea |
| IV.5.- Irakasle bakoitzaren zeregin aktiboa eta erantzukidea sustatzea bere ikasteko prozesuan | 1.4. H.E. UPV/EHUren berezko hezkuntza eredua, IKD eta i3 estrategia bultzatzea. |
| IV.6.- Pertsonen egokitasuna eta prestakuntza indartzea, Unibertsitatearen misioa eta ikuspegiarekin bat | 2.2. H.E. Fakultateko langileen lanbide sustapena eta lan egonkortasuna ahalbidetzea. |
| IV.7.- Pertsonen zerbitzura dauden aplikatiboen/informazio sistemen berritzea, malgutasuna, integrazioa eta iragazkortasuna ahalbidetzea | 4.2. H.E. Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea.<br>4.4. H.E. Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea. |
| IV.8.- Graduondoko ikasketak egin nahi dituzten ikasleen artean arrazoi ekonomikoen ondoriozko balizko estratifikazioak murrizten laguntzea | -- |
| IV.9.- Laneko bizitza eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioa ahalbidetzea eta ibilbide profesionalean emakumezkoak kaltetzen dituzten genero alborapenak gainditzeko neurriak sustatzea | 2.3. H.E. Lanean giro ona ahalbidetzea. |

Pertsonak ardatzean bi esparru estrategikoen arteko lerrokatzea argia da, bereziki garapen profesionalari, laneko giroari eta aintzatespenari dagokionez. Graduondokoen estratifikazio ekonomikoarekin lotutako helburu espezifikorik ez izatearen arrazoia

da alderdi horrek unibertsitate mailako kudeaketa zentralizatua eskatzen duela. Hala ere, Fakultateak laguntza mekanismo osagarriak ezartzea aintzat har lezake etorkizuneko berrikuspen estrategikoetarako.

## V. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

| UPV/EHUren Helburu Estrategikoak | Fakultatearen Helburu Estrategikoak |
|---|---|
| V.1.- Unibertsitateko kideen erantzukidetasuna, partaidetza eta inplikazioa sustatzea erabakiak hartzean eta UPV/EHUren proiektuetan, bereziki gazteenen kasuan. | 4.1. H.E. Sailekin estrategia bateratu bat garatzea sustatzea.<br>4.2. H.E. Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. |
| V.2.- Campus atseginak sortzeko eta unibertsitate bizitza areagotzeko azpiegitura egokiak sustatzea | 2.4. H.E. Fakultatea ingurune osasungarri eta erosoa izan dadin sustatzea.<br>4.6. H.E. Ikastegiaren segurtasuna optimizatzea, gabeziak zuzenduz eta autobabes plana eguneratuz. |
| V.3.- Aldebiko komunikazio enpatikoa sustatzea unibertsitateko kargu desberdinen eta unibertsitateko kideen artean | 4.1. H.E. Sailekin estrategia bateratu bat garatzea sustatzea.<br>4.2. H.E. Fakultateko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. |
| V.4.- Oreka sortzea prozesuen gardentasunaren eta horrek eskatzen duen burokraziaren artean, bai eta baliabideen eta informazioaren kudeaketaren efizientzia hobetzeko, eraldaketa digitalerako prozesuaren aurrerapenak eskaintzen duen aukera aprobetxatuz | 4.3. H.E. Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea.<br>4.4. H.E. Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea. |
| V.5.- Gizarte erronkei eta GJHei erantzuten dieten proiektuak aurkeztea, besteak beste Next Generation (NGEU) funtsen deialdiak baliatuz. | 3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. |
| V.6.- Proiektu estrategikoen garapena oztopatu dezaketen araudi trabak eta karga administratiboak kentzea, interes publikoa edo Unibertsitatearen interesa lortzen dela bermatzeko beharrekoak ez direnean, betiere eragindako edo inplikatutako organoen, zerbitzuen edo eragileen partaidetzarekin. | 4.3. H.E. Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea. |
| V.7.- Finantzaketa publikoa eta pribatua hobetzea, betiere gure unibertsitatearen zerbitzu publikorako helburua kontuan izanda | -- |
| V.8.- Genero berdintasuna sustatzea unibertsitate lidergoan | 3.3. H.E. Gure jarduera 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea. |

Gobernantza eta Baliabideak ardatza batez ere gure Kudeaketa ardatzean jasota dago, eta Gizartea ardatzeko alderdi batzuek osatzen dute. Finantzaketaren esparruan helburu espezifikorik ez izatearen arrazoia da alderdi horrek unibertsitate mailako kudeaketa zentralizatua eskatzen duela. Hala ere, Fakultateak baliabideen kudeaketaren efizientziarekin konprometituta dago etengabeko hobekuntza eta kalitateko helburuen bidez.